



INSTALAZIO GIDAK – IZENPE-REN MIDDLEWAREA

Middleware utilitate edo aplikazio bat da, txartel kriptografikoa bera sistema eragilearen bidez edo ordenagailuaren bidez maneiatzeko eta komunikatzeko aukera ematen duena.

Horrez gain, middleware-aren bidez:

- Txartel kriptografikoen irakurgailuetako bakoitza identifikatzen da.
- Erabiltzaileak bere txartelaren PIN eta PUK gakoak aldatzeko aukera du.

IZENPEk gomendatzen du bere web-orritik DESKARGATZEA ETA EGUNERATZEA IZENPEren MIDDLEWAREaren azken bertsioa.

Software berriaren deskargagarria IZENPEren web-orrian bertan aurkituko duzu

http://www.izenpe.com/s15-12020/es/contenidos/informacion/gestionar/es_certific/puesta_en_marcha.html

IZENPE-REN MIDDLEWAREA:

IZENPEren gaur egungo middlewarea instalatzeko:

-**BEHARREZKOA** da ADMINISTRARI erabiltzaile-profil batetik exekutatzea instalagarria, behar bezala instalatzeko.

-Web-orriko gaur egungo instalagarriak automatikoki desinstalatuko ditu Safesing-en middlewarearen aurreko bertsioak, eta IZENPEren middlewarearen aurreko bertsioak dauden ohartaraziko du, behar bezala instalatzeko.

Har ezazu kontuan IZENPEk 2011ko azarora arte emandako softwarea, SAFESING, bateraezina dela gaur egun banatzen den softwarearekin, eta, hortaz, ezin direla bi aplikazio horiek batera eduki. Izatez, erroreak sortzen dituzte ziurtagiriaren kautotzeko eta sinatzeko prozesuetan.

Zure sistemak txartela eta txipean sortutako informazioa onartzen duela egiaztatzeko:

- Sar ezazu txartela dagokion irakurgailuan.
- Sar zaitez zerbitzuan: zure idazmahaiko zuzeneko sarbidetik.





- Edo Hasi → Programa guztiak → Izenpe → Txartelaren kudeaketa.



- **Hauta ezazu *Ikusi* aukera**, bertako informazioa erakusteko PINak eskatuko diguna, ondoren erakutsiko dugun bezalaxe:

OHARRA: GOGORA EZAZU behealdeko eta eskuinaldeko **goitibeherako menuan hautatu** behar duzula txartela sartuta duzun irakurgailua.

- Zure txartelaren PINaren bidez identifikatzea eskatuko dizu.
- ZIURTAGIRIAREN ZATI PUBLIKOA ikusiko duzu.

